

LEINTZ GATZAGA / Ume zein gaztetxoak gustura liburutegian

Asteazabaldutuzte ludoteka eta liburutegia, eta ume zein gaztetxoak gustura baino gusturago daude. 17:00etatik 18:00etara umeek dute hitzordua ludotekan, eta 18:00etatik 20:00etara 6 urtetik gorako gaztetxoak ere etor daitezke liburutegiaren txanda da-eta.

Umeak eta gaztetxoak batera egoten dira liburutegian ipuinei begira. Astelehenean zabaldutuzten ludoteka eta liburutegia, eta bete-betean asmatu zuten Gureleko kideek. Izan ere, iritsi da eguraldi narrasa eta Gatzagako ume zein gaztetxoek arratsaldea pasatzeko leku bikainak aurkitu dituzte. Txikienak saltoka eta jolasean eta nagusiagoak liburuei begira edo etxerako lanak egiten norberak bere lekua topatu behar. Alazne Diaz aretxabaletarraren begiradapean ez dira aspertuko ekaina bitartean.